



 A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION

ENGLISH | FRANÇAIS | 汉语 | EUSKERA



ZARAUTZ 3X3 STREET BASKET IV. ARGAZKI LEHIAKETA

1. GAIA: SASKIBALOAIA MALEKOIAN

3x3 lehiaketaren barruan kultura aniztasuna eta giro askotarikoa islatzen duten argazkiak: partidaren gorabeherak, jokalariak, lagunak, familiakoak, malekoiko giroa...

2. PARTE HARTZAILEAK - ARGAZKIAK

16 urtetik gorakoek har dezakete parte. Parte-hartzaile bakoitzak 2 argazki bidal ditzake gehienez:

- Argazkiok serie bat osa dezakete edo solteak izan daitezke.
- Originalak behar dute izan eta 2012ko lehiaketan eginak.
- Koloretan edo zuri-beltzean

3. ARGAZKIAK BIDALTZEKO EPEA

Abuztuaren 27tik 30era

4. NOLA ETA NORA BIDALI

- Posta elektronikoaren bidez helbide honetara: komunikazioa@zast.es
- JPEG formatuan
- GUTXIENeko ERRESOLUZIOA: **300 pp.** Zip edo rar formatuan konprimi daitezke.
- Argazki bakoitza zenbakituta egongo da: "1.JPEG", "2.JPEG"...
- Argazkiekin batera testu-fitxategi bat bidaliko da, honako datu hauek azalduta:
 - o Egilearen izen-abizenak
 - o Telefonoa eta posta elektronikoaren helbidea
 - o Argazki bakoitzaren izenburua, fitxategi-zenbakiari lotua

5. SARIAK

1. SARIA: Academia Lacunzak emandako hizkuntza ikastaro bat (ingelesa, frantsesa, txinera edo euskara) eta Javier Lucas argazki-dendak emandako 50 €-ko bale bat, 2 GB-ko pen drive bat eta argazkiaren 40x50 erreprodukzio bat. Argazkia Euskalduna Tabernan erakutsiko da urrian egingo den erakusketan.

2. SARIA: Academia Lacunzak emandako hizkuntza ikastaro bat (ingelesa, frantsesa, txinera edo euskara). Argazkia Euskalduna Tabernan erakutsiko da urrian egingo den erakusketan.

3. SARIA: Javier Lucas argazki-dendak emandako 25 €-ko bale bat, 2 GB-ko pen drive bat eta argazkiaren 40x50 erreprodukzio bat. Argazkia Euskalduna Tabernan erakutsiko da urrian egingo den erakusketan.

6. EPAIMAHAIA

Academia Lacunzako ordezkari bat, Zasteko ordezkari bat eta Zarauzko argazkilari ezagun bat. Epaimahaikideen erabakia apelaezina izango da. Argazkien kalitatea, orijinaltasuna, sormen-lana eta gaiarekin duten lotura izango dira irizpideak ebazpena egiterakoan.

7. SARI BANAKETA

www.zast.es web gunearen bidez jakingo da irabazleen berri. Saridunei telefono edo posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie.

8. ARGAZKI SARITUEN ERABILERAZ

Zarauzko Saskibaloi Taldea (Zast) saritutako argazkien jabe izango da eta haiek erabiltzeko, erreproduzitzeko, erakusteko eta zabaltzeko eskubidea izango du, haien autoretza aipatuta.

Aurkezten diren argazkiekin erakusketa egiteko aukera izango du Zast-ek. Argazki-lehiaketan parte-hartzeak arauak onartu izana eskatzen du.